



Mikel Garcia Idiakes

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Gizonik ez Lilatoian

URTEROKO LELOA DA, badakit: zergatik ezin dugu parte hartu gizonok Lilatoian? Eta aurten ere kezuka entzun dut ezagun bat, baina ez “zergatik ezin dugu emakumeekin batera joan, aldarrikapena elkarrekin eginez” tonuan, baizik “parekidetasuna eskatzen dute, baina gero gu diskriminatzen gaituzte, bada gero ez daitezela kezatu” gaineratuta.

Lehenengo taldeko gizoni esango nieke bigarren taldekoen pentsamoldea oraindik ere hain zabaldua dagoen bitartean, beharrezkoa dela Lilatoia; eta bigarren taldekoentzat, hemen argudio gutxi batzuk:

– Behingoz, baita modu bisualean ere, protagonistak –erabatekoak, bakarrak– emakumeak izan daitezten. Eta helmuga iristen lehena –eta garaile bakarra– ere emakumezkoa izan dadin.

– Behingoz, modu sinbolikoan, literalean eta bisualean, emakumeek kalea har dezaten, espazio publikoa emakumeena –eta soilik beraiena– izan dadin.

– Behingoz, rola alda daitezten: emakumeek jaso ditzaten txaloak, eta gizonak egon daitezten espaloian animatzen eta seme-alabak zaintzen.

– Jabetu gaituzten, arreta deitzen digula denak emakumezkoak izateak lasterketan, baina ez maratoni-erdi eta lasterketa “herrikoi” pila batean korrika ari diren %90a gizonetzkoak izateak.

– 3.500 emakume –bereziki ama tartean bada– korrika ikustea edozein kanpaina baino eraginko-

rragoa delako neskatoak kirolera animatzeko.

– Baztertuta sentitzen diren gizonen enpatizatu dezaten emakumeek sarri sentitzen dutenarekin, kontziente edo inkontzienteki lasterketan –eta makina bat ekitaldiren– eredia oso maskulinoa baita: Dorleta Ugalde kirolariaren hitzetan, “onartuak direla eta kontuan hartzen dituztela sentitu behar dute emakumeek kirol munduan, bestela lekuz kanpo ikusten dutelako beren burua, giro arrotzean”.

Lehenengo taldeko gizoni esango nieke bigarren taldekoen pentsamoldea oraindik ere hain zabaldua dagoen bitartean, beharrezkoa dela Lilatoia; eta bigarren taldekoentzat, hemen argudio gutxi batzuk

– Horregatik guztiagatik diskriminazioa, diskriminazio positiboa, oraindik beharrezkoa delako; nola ulertu bestela hainbeste emakume animatzea festa giroa oinarri duen Lilatoian parte hartzera, eta hain gutxi proba mistoetan?

– Lilatoia izan dadin lehen urratsa eta tranpolina, emakume horiek guztiak proba mistoetarako jauzia egin dezaten. Izan ere, nik ere emakumeekin batera egin nahi dut korrika, baina ez martxoaren 8an. ■

Sortu den eztabaida irakur dezakezu blogean.



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Kontraekonomia jardunaldiak



BIZKAIA

Iñaki Aurrekoetxea

◆
Doinua: Mutil koxkor bat.

Lezio bat da ikasten dena behin Sarrikora sartuta: kapitalaren morroiak gara bizitzan hasi ta buka! Hile honetan markatu al dio Kontraekonomiak pautak! Nahiz dirudien, ez dauka ezer ekonomiaren aurka; justuago bat birpentsatzeko ziotik gehiago dauka.

Kapitalismo basatiari sozialismo dosia... Gogora jatort behin Maialenek BECen adierazia; Andonirekin giltzurrun-pasan, argitu zuen auzia: “lehen bi ta zero, ta orain bana”, hura zela justizia. Gizartegintzak beharko lukeen gizalege nagusia!

Krisia sortu dutenak daude alfonbra gorritan bero, ta bitartean aldaketarik ez dezagula espero. Zer litzateke gure buruan ekuazio hau balego: behar ez dudana baliabide bat eskuratzen dudanero, besteren batek behar duena ez du aurkituko gero. ■

